

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**88/2019 Foru Agindua, martxoaren 1koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. 196, 198 eta 291 ereduak onesten dituzten zenbait foru aginduren aldaketa**

Foru Agindu honen xedea da eredu hauetako zenbait eremu aldatzea: 196 ereduak, atxikipe-nak eta konturako ordainketak, honako hauen gainekoak: kapital higigarriaren etekinak eta mota guztietako finantza erakundeetako kontuen ondoriozko kontraprestazioagatik lortutako errentak, barne direlarik finantza aktiboen gaineko eragiketetan oinarritutako kontuen ondoriozkoetatik, eta kreditu entitateetako kontu jakinei buruzko urteko informazio aitortpena; 198 ereduak, finantza eragiketekin eta bestelako balore higigarriekin egindako eragiketen urteko aitortpena; eta 291 ereduak, ez-egoiliarren kontuen etekinak, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergako zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortuak. Informazio aitortpena.

Eremuen helburua da ustez abandonatuta dauden eta, gainera, aitortuen identifikazioan arazoak dituzten kontuak identifikatzea,

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena ikusi da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

**Lehenengo artikulua** Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 23ko 734/2008 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 196 ereduak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena, sozietateen gaineko zergarena eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarena (establezimendu iraunkorrak). Atxikipe-nak eta konturako diru sarrerak, kapital higigarriaren etekinak eta mota guztietako finantza erakundeetako kontuetatik datozen kontraprestazioen ondorioz lortzen diren errenten gainekoak, finantza aktiboen gaineko eragiketetan, baimendutako pertsonen urteko informazio aitortpenean eta finantza erakundeek kontuetan dituzten saldoetan oinarritutakoak barne.

Bat. «Ustez abandonatutako kontuak» eremu berria gehitzen da, 479 posizioan, II. eranskinean jasotzen diren 196 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa), eta eduki hau du:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
479	Alfabetikoa.	USTEZ ABANDONATUTAKO KONTUAK «X» idatziko da ustez abandonatuta dauden kontuen kasuan, azaroaren 3ko 33/2003 Legean eta hura garatzeko araudian xedatutakoartzeko araudian xedatutakoarekin bat, aitortuak identifikatzeko arazorik badago.

Bi. 2 erregistro motako (aitortuaren erregistroa) «Zuriuneak» 479–500 posizioak «Zuriuneak» 480–500 posizioetara aldatzen dira.

Hiru. «Ustez abandonatutako kontuak» eremu berria gehitu da, 500 posizioan, II. eranskinean jasotzen diren 196 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (baimenduaren erregistroa), eta eduki hau du:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
500	Alfabetikoa.	USTEZ ABANDONATUTAKO KONTUAK «X» idatziko da ustez abandonatuta dauden kontuen kasuan, azaroaren 3ko 33/2003 Legean eta hura garatzeko araudian xedatutakoartzeko araudian xedatutakoarekin bat, aitortuak identifikatzeko arazorik badago.

**Bigarren artikulua.** Aldatzen da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren martxoaren 9ko 133/2005 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 198 eredua, finantza aktiboekin eta beste balore higigarri batzuekin egindako eragiketen urteko aitortpenarena, bai eta haren barruko orrien ordeztu ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarria erabiltzeko diseinu fisiko eta logikoak ere.

Bat. Aldatzen da hirugarren apartatuko bat zenbakiko k) letra, eta honela idatzita geratzen da:

“k) Ekarpinak itzulita kapitala murrizteko eragiketak edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauak, finantza-tresnen merkatuei buruzkoak, zehazten dituen balore merkatu arautuetako batean negoziatzeko onartzen ez diren eta sozietate edo entitateen funts propioetako partaidetzaren adierazgarri diren baloreen jaulkipen saria banatzeko eragiketak egiten dituzten entitateak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegiak, abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 78. artikuluko i) letran xedatutakoaren arabera atxikipenari lotuta ez dauden eragiketei buruz, pertsona fisikoen alde eginak baldin badira.

Eragiketa horietan esku hartzen badu abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsitako arautegiaren 7. artikuluan (kontu, eragiketa eta finantza-aktiboen gainean eta atzerrian kokaturiko ondasun eta eskubideen gainean informazioa emateko betebeharrak arautzen du) aipatzen den informazio aitortpena aurkeztu beharra duten subjektuetakoren batek, haiek informazio aitortpen horren barruan jaso beharko dituzte eragiketa egin duen entitatearen identifikazio datuak, eta eragiketa egin den data. Informazio hori, aurreko paragrafoan adierazten diren entitateek aurkeztu behar dutenetik apartekoa da.”

Bi. Hirugarren apartatuko oraingo bost zenbakia apartatu horretako zazpi apartatua izatera pasatzen da, eta bost apartatua honela idatzita geratzen da:

“Bost. Apartatu honetako Bat zenbakiko a) letran aipatzen den informatzeko betebeharrak betetzat joko da, fede emaile publikoek parte hartzen duten edo bitartekari diren eragiketetan, baldin eta fede emaile publiko bakoitzak Notarioen Kontseilu Nagusiari informazioa ematen badio aldizka, notariotzari buruzko 1862ko maiatzaren 28ko Legearen 17.2 artikuluan xedatutako betebeharrak betetzearren.”

Hiru. Hirugarren apartatuari sei azpiapartatu berria gehitzen zaio, ondoko eduki hau duena:

“Sei. Eragiketa lehentasunezko harpidetza eskubideak eskualdatzean datzanean, horien Espainiako erakunde gordailuzainek egin beharko dute aitortpena, edo, bestela, eragiketan esku hartu duen finantza bitartekariak edota fede emaile publikoak».

Lau. «Ustez abandonatutako balore kontuak» eremu berria gehitzen da, 316 posizioan, II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa), eta eduki hau du:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
316	Alfabetikoa	<u>USTEZ ABANDONATUTAKO BALORE KONTUAK</u> «X» ipiniko da ustez abandonatuta dauden balore kontuen kasuan, azaroaren 3ko 33/2003 Legean eta hura garatzeko araudian xedatutako araudian xedatutakoarekin bat, aitortuak identifikatzeko arazorik badago.

Bost. 2 erregistro motako (aitortuaren erregistroa) «Zuriuneak» 316-500 posizioak «Zuriuneak» 317-500 posizioetara aldatu dira.

**Hirugarren artikulua** Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren abenduaren 16ko 712/2002 Foru Agindua, zeinaren bidez onetsi baitzen 291 eredua –ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga dela-eta ez-egoiliarrek, establezimendu iraunkorrik gabe, beren kontuetatik lortu dituzten etekinen informazio aitortpena–, bai eta diseinu fisiko eta logikoak ere, ordenagailuz zuzenean irakur daitekeen euskarrian aurkeztu ahal izateko.

Bat. «Ustez abandonatutako kontuak» eremu berria gehitzen da, 420 posizioan, II. eranskinan jasotzen diren 291 ereduko diseinu fisiko eta logikoetako 2 erregistro motan (aitortuaren erregistroa), eta eduki hau du:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
420	Alfabetikoa.	USTEZ ABANDONATUTAKO KONTUAK «X» ipiniko da ustez abandonatuta dauden kontuen kasuan, azaroaren 3ko 33/2003 Legean eta hura garatzeko araudian xedatutakoartzeko araudian xedatutakoarekin bat, aitortuak identifikatzeko arazorik badago.

Bi. 2 erregistro motako (aitortuaren erregistroa) «Zuriuneak» 420-432 posizioak «Zuriuneak» 421-432 posizioetara aldatzen dira.

#### AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta lehenengo aldiz ondorioak izango ditu 2019ko urtarrilaren 1az gero 2018ko ekitaldiaren informazioaz aurkeztu behar diren aitortpenetan.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 1a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua*  
**JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ**

*Ogasun zuzendaria*  
**TERESA VIGURI MARTÍNEZ**